

# Katedralean musika koraleko kontzertuen ziklo berri bat egingo da, eta aurten hamargarren urteurrena beteko du zikloak



10 urte. Zifra "biribila" da, eta Katedralean Arabako abesbatzek egindako errezitaldien ibilbidea markatzen du. Beste behin, Santa Mariako Elizpean arituko dira. Bost kontzertu eskainiko dira izen berria duen hamargarren urteurrena ospatzeko: **Ahotsak Elizpean**.

Arabako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean eta Laboral Kutxaren babesarekin, Santa Mariako Elizpean musika koraleko kontzertuen ziklo berri bat egingo da. Hain zuzen ere, 10 urteko ibilbidean, programa sendoa izatea erakutsi du zikloak, Fundazioaren eta, oro har, Arabako programazio kulturalen.

**Ahotsak Elizpean** ekimenak, edizio bakoitzean, nortasun propioa izatea erakutsi du, eta jende asko bildu da eta jendeak ondo onartu du, ehunka ahotsez eta errepertorio anitzez gozatu ahal izan dute-eta. Gainera, Lurraldeko abesbatza heldu guztiak parte hartu dute, garai, erregistro eta herrialde ezberdinetako abestiak eskainiz eta musika korala adierazpen guztiak irudikatuz.

Aurten, guztira, 20 taldek parte hartuko dute maiatzaren 10etik aurrera maiatzeko ostiral guztietan eta ekainaren 14an eskainiko diren 5 kontzertutan.

Santa Maria Katedrala  
 Catedral de Santa María

2024

<b>MAIATZA MAYO</b> ostirala 24 <b>viernes</b> AMALUR ABESBATZA CORO URKANTA ERRIERA BETIA ABESBATZA CORAL ENOL	<b>MAIATZA MAYO</b> ostirala 31 <b>viernes</b> ARANTZUELA ABESBATZA KATALITURRI ABESBATZA TANTAR ABESTALDEA CORAL AHOITS ARGIAK	<b>MAIATZA MAYO</b> ostirala 10 <b>viernes</b> MAIRU ABESBATZA CORO FLORIDA CORAL MANUEL IRADIER CORO BADAIA	<b>MAIATZA MAYO</b> ostirala 17 <b>viernes</b> CORO AUSARTAK CORAL DELUZTEA EGUZKILORE ABESBATZA CORO SANTA CANTORUM
<b>EKAINA JUNIO</b> ostirala 14 <b>viernes</b> HARIETZ HOSTIA ABESBATZA CORAL GURASOAK CORO VICENTU GARCIA CORAL BI HOTSAK			

**Ikusizunak:** Argiaren Elizpea, Santa Maria Katedrala 19:45etan.  
Gonbidapenak: BISITARIEK ZENTROA, Santa Maria Kantoia 3. Kontzertuaren asteen hartuko dira asteazkenetik aurrera

**Actuaciones:** Pórtico de la Luz, Catedral de Santa María 19:45 h.  
Invitaciones: CENTRO DE VISITANTES, Cambio de Santa María 3. Se recogerán a partir del miércoles en la semana del concierto

**Gonbidapenak** Bisitarien Zentroan jaso ahal izango dira (Santa Maria Kantoia, 3). **Fundatzaileen Zirkuluko** kideek kontzertuaren asteko astelaren eta asteartean jaso ahal izango dituzte. Bestalde, **herritarrek, oro har, asteazkenetik** aurrera jaso ahal izango dituzte kontzertuaren asteen.

## Luis Aranburu Musika Eskolaren ikasturte-amaierako entzunaldiak

Luis Aranburu Musika Eskolako ikasleen ikasturte-amaierako hainbat pieza entzun ahal izango dira beste behin Katedralaren elizpean. Zehazki, maiatzaren **29an eta 30ean, 19:00etan**, hainbat pieza interpretatuko dituzte eta ikasturtean zehar lortutako aurrerapenak erakutsiko dizkiete herritarrei.

Alde Zaharrean kokatutako udal-eskola honetako ikasleen kontzertuetarako sarrera doakoa da, baina aurretik zentroan bertan gonbidapena jaso behar da.



POETAK  
MAIATZEAN  
POETAS  
EN MAYO

Nazioarteko Poesia Jaialdia  
Festival Internacional de Poesía  
Vitoria-Gasteiz - Araba-Álava

XII Edición



Del 3 al 26 de mayo de 2024



## Poetak Maiatzean bertsoak izango ditugu beste behin Katedralean

Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Poesia Jaialdiak XII. edizioa beteko du aurten, eta Katedralaren Elizpea egoitzetako bat izango da. Oraingoan, bi hitzordu eskainiko dira: maiatzaren 5ean *Txorien udaberria* eta maiatzaren 19an *Etxe bat*. Biak 19:00etan hasiko dira, eta sarrera doakoa da.

*Txorien udaberriari* dagokionean, Honorino Garciak partitura bat osatu du errezitatutako poema bakoitzerako, eta, aldi berean, soinua manipulatu da keinuaren bidez. Eskuekin egindako keinuak ezagutzeko sare neuronal trebatu batetik abiatuta, Elisa Ruedak bere hitzak denboran higitzen, zabaltzen ditu, espazioan barrena mugitu eta hainbat soinu-parametrotan eskuekin eragingo du. Honorinok, berriz, berak egindako instrumentuekin lagunduko dio hitzari.

Bestalde, *Etxe bat* piezan Yolanda Arrietaren euskarazko testuak eta gidoia eta Peru Galbeteren kantuek eta musika izango ditugu. Gaston Bachelard soziologoak espazioen esanahietan murgilduko gaitu Espazioaren poetika saiakeran, kanpoko espazioez ari garenean gure barruko gelei buruz ere aritzen baikara. Etxearen irudia hautatu du bere adimenetako biztanle gisa. Eta hiru denborak bizigune hori asmatzeko lotu ditu. Bat, memoria beroa nondik datorren gogoratzeko. Bi, leihoak irekita, uneari lekua egiteko. Hiru, irudimena martxan, bere nahia ez ahazteko. Gelaka lan egin du, bakoitza bakean konpontzeko. Helburu bakarra buruan: amets egiten jarraitzea.

**Informazio gehiago:**

[www.poetasenmayo.com](http://www.poetasenmayo.com) web gunean eta sare sozialetan.

## Toulouseko Ganbera Orkestraren kontzertua



Musika klasikoa entzungo da beste behin Katedralako Elizpean, eta, oraingoan, Toulouseko Ganbera Orkestra izango da protagonista ekainaren 1ean.

Oraingoan, Toulouseko Ganbera Orkestrak, Gilles Colliard-en musika-zuzendaritzapean, italiar barrokoko konpositore handienak bildu nahi izan ditu, asmamen guztia neurtzeko aukera emango duen programan; gainera, garaiko instrumentu originalekin interpretatuko da.



Toulouseko Ganbera Orkestra Louis Auriacombek sortu zuen 1953an, 50eko hamarkadako abentura musikal handian sartzeko asmoarekin, eta 12 hari-instrumentista bakarlarirekin eratu zen. Geroztik, 5.000 kontzertutik gora eskaini dituzte 30 herrialde baino gehiagotan, eta 60 disko baino gehiago grabatu dituzte.

Kontzertua ekainaren 1ean izango da 19:30ean. Fundazioko bazkideek beren gonbidapena jaso ahal izango dute maiatzaren 21era bitarte. Maiatzaren 22tik aurrera, publikoak gonbidapenak jaso ahal izango ditu Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3) eta [www.catedralvitoria.eus](http://www.catedralvitoria.eus) web gunean ere bai.

JARRAI GAITZAKEZU:



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria